

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

68/2016 Mozioa, azaroaren 9koa, Indesako langileen lan-baldintzei eta hitzarmen kolektiboari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2016ko azaroaren 9an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

68/2016 Mozioa, azaroaren 9koa, Indesako langileen lan-baldintzei eta hitzarmen kolektiboari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote behin betiko eta modu adostuan bereizi dezala Indesako langileen soldataren igoera eta lan-hitzarmenaren gainerako negoziazioa, eta soldata-igoerak gauzatu daitezela urtearen lehen hilabeteetan.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, negoziazio kolektiboaren esparruan, sustatu dezala Indesako langileen lan-baldintzak hobetzea, arreta berezia emanez prestakuntza, aukeren berdintasuna eta gaikuntza bultzatzeari, langileok lan-merkatu arruntean integrazioa errazteko xedez.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote al bait arinen sinatu dadila Indesaren 2016ko lan-hitzarmena, eta kontuan hartu dadila negoziazioetan Enpresa Batzordeak aurkeztutako plataforma.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 9a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA